

Xabier Letona

♦ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Non da bake prozesua abiarazteko indarra?

JESÚS EGIGURENEK argi iradoki zuen duela gutxi Euskadi Irratian egindako elkarrizketa batean ETAk nahi duela bere bukaeraz berba egin, baina PPren Gobernuak ez duela halakorik gura. Eta bere emazte eta PSEko buruzagi Rafaela Romerok ere hala adierazi berri du: “Nik ez dut frogarik noski, baina, omen, ETA prest egon da armak entregatzeko, bere burua desegiten duela adierazteko, baina, omen, PP, eta Espainiako Gobernuak ez dira eseri armak hartzeko. Ez dute eseri nahi izan” (ARGIAko kazetari Mikel Asurmendiren *Katebegia* blogean azaldua).

Imanol Muruak ere zur eta lur irudikatzen du Brian Currin: “Abokatu hegoafrikarrak esana dauka ez duela orain arte ezagutu, mundu osoan, Estatuaren aurka jardun duen talde armatu baten desarme borondatezkoan parte hartzeari uko egin dion gobernurik” (*Berria*, 2013-5-12). Ez, ez dut uste Espainiako Gobernuak salbuespena denik, azken mende erdian bada gobernu ugari disidentzia politiko armatua —eta haren ingurune zibila— txikitu eta suntsitu duenik, baina, jakina era horretako gobernu eta estatuak dira edo izan dira: Indonesia, Sri Lanka, Argentina, Israel, Irak, Turkia, Guatemala, Hego Afrika, Ruanda...

Horiek eta beste askok azken hamarkadetan basakeria ugari egin dituzte haien barne etsaiekin. Espainia ez da konparagarria maila horretan estatu horiekin, ez du milaka hildako eragin ETArek militanten artean edo haren ingurune zibilean; areago, hildakoei dagokienez, azken 50 urteetan ETAk Estatuak baino hildako

gehiago eragin ditu euskal gatazka deituriko honetan. Baina izan dezake parekotasunik gatazkaren bukaera bideratzeko orduan: konpondu baino nagusitu, eta nagusitasunean, negoziatu baino, mendeatu. Ezin baita beste era batera ulertu PP ETArekin egiten ari dena, beti ere publikoki ikusten ari garena baloratuz. ETAk preso eta iheslariena negoziatu nahi du, erabat logikoa dena armak uzten dituen edozein erakunderentzat. Hori egin ondoren, armak entregatu, desegiten da eta kito. Nork ez zuen sinatuko hori duela hogeit hamar edo bost urte? Akaso PPk berak ez, beste guztiek bai.

Zergatik izan behar du sinesgarria ETA desagertzen bada, presoena konpontzea errazagoa izango dela?

Erabateko nagusitasunaren ikuspegitik eta Espainian hala komeni delako, PPri akaso ondo datorkio presoak espetxean izatea, ETA ez desagertzea eta atxilotekin jarraitzea. Baina horrek zer mesede ekar diezaioke euskal gizarteari? Hutsa, bat ere ez. Kaleratze moldetan sartu barik, euskal gizarteari askoz gehiago komeni zaio presoak kalean izatea, elkarbizitza prozesu bat irekitzea, biktimei arreta jartzea, bizirik diren minak baretzea, gertatu denaz hitz egitea, berriro gerta ez dadin neurriez jardutea, gatazka hau elkarriketatik konpontzea... Hau da, bake prozesua askoz gehiago interesatzen zaiola, geldi dagoen ETArek suntsitze prozesua baino, arazoa gizendu besterik egiten ez duen etakideen atxiloteta baino.

Horregatik, ulergarria da PP pozteak atxilotetekin, baina ez da

ulergarria EAJ ere publikoki berdintsu azaltzea, ETA desegiten ez den artean hori dela logikoa eta halako diskurtsoarekin. Eusko Jaurlaritzak darama eta akaso egin beharko du gisako adierazpenik, baina bake prozesua elikatuko duten ñabardurak ere ezinbestekoak ditu, eta une honetan ez dira ikusten ari.

Lehen edozelako helburu politiko lor zitekeen bide politikoetatik, eta horregatik ETArek desegiteko eskatzen zitzaion. Ibarretxeri Madrilen emandako danbatekoak erakutsi zuen hori ez dela horrela. Egungo Kataluniaren egoerak are eta argiago erakusten du gauza bera. “Tira, utzi itzazue armak, presoak aterako ditugu eta bideratu zuen borroka armarik gabe”, esan ohi zaio ETAre, hau indartsu zenean erregru doinuz gainera.

Ulergarria da bere preso, iheslari eta militanten etorkizuna bideratu barik ETAk ez desagertu nahi izatea. Erabat. Baina gaur egun, dagoeneko galdera airean dago: nola lortuko du helburu hori hobeto, deseginda ala bizirik jarraituta. Azken finean, hori egoitea zerbait sinbolikoa da, arazo horiek konpondu ezean ETAk bizirik dirauela adieraztea. Presoak kaleratuko badira, ordea, bake prozesu baten testuinguruan izango da, eta hau gauzatzen bada herritarren presioagatik izango da. Baina, bestetik, zergatik izan behar du sinesgarria ETA desagertzen bada, gero presoena konpontzea errazagoa izango dela? ETA desagertuz gero, izango ote dira gai euskal herri-tarrak, euskal gizarteak, presoak kalera-tzeko behar den presioa eragiteko? ■

